

# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 1092

*AGINDUA, 2024ko otsailaren 26koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez hutsik uzten baita Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzako «goi-kargudunaren idazkaria»ren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa.*

Euskal Enplegu Publikoaren buruzko, abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.c) artikuluan eta Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduaren hirugarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorriz (2024ko urtarrilaren 29ko EHAA, 21. zk.), zeinaren bidez iragarri baitzen sail honetan hutsik dagoen lanpostu hori izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea Lan eta Enplegu Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzan goi-kargudunaren idazkariaren lanposturako deialdia (kodea: 520010; dotazioa: 31).

Bigarrena.– Agindu honek 2024ko otsailaren 26tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; horrenbestez, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 26a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.